

GERRA JARRAITU ZUTENAK

Mikel Zabaleta


Aurten, II. Mundu-Gerra duela berrogeita hamar urte bukatu zela ospatzen dugu. Mundu guztian gaur egun suertatzen ari diren sarrakiei erreparatzen badiogu, ez dirudi hainbeste urte pasa direnik. Gizakiok jasan ditugun porrotetatik eta iskanbiletatik ez dugu gauza garbirik atera. Bosnia, Ruanda, Txetxenia... izen guzti hauek guretzat erabat ezezagunak ziren duela hamar urte eta gaur, aldiz, kalean aurki dezakegun edozein mutiko koxkorrek adieraziko digu haiei buruz jakin nahi dugun guztia. Eta, fama hori nola lortu dute? Leku guzti hauetan izandako gatazka eta hilketak direla kausa, besterik ez. Nola edo hala, 1945. urtearen itzalak itzuli dira, inoiz baino beltzagoak, gainera.

Indarkeria, arrazakeria, sektarismoa, aurkakoari errespeto eza... hauek dira politikoei erabiltzen dituzten armak, eta erabiltzen ez dituztenek ezer ez edo ezer gutxi egiten dute arazo guzti hauek konpontzeko. Gaur, nazismoren garaian bezala, jende asko bere azal koloregatik, bere ideiegatik edo bere erlijioengatik zanpatua izaten da. "Nire talde politikoa partaide ez zarenez edo nire kontrakoaren laguna zarenez gaizki ibiliko zara: zerrenda beltzean sartuko zara, lanik ez duzu aurkituko, nire esku baldin badago gutxienez, eta nik ahal dudan neurrian bizitza izorratuko dizut". Halaxe dira egungo kontuak!

Izan ere, eta beti esaten dugunez, historiari begiratzen badiogu zerbait ikas dezakegu gure gizarte moderno lantzeko edota, gutxienez, betiko akatsak hainbeste ez errepikatzeko. Horregatik berrogeita hamar urte atzeruntz itzuliko gara, gure antzinako herritarrek zer egin zuten ikertzeko.

1936an hasitako gerra zibilari buruz, hainbat eta hainbat alditan hitzegin eta idatzi dugunez, gaur ez dugu gai bera jorratuko. 1939tik aurrera, gerra zibila bukatu zenetik, Euskal Herritik kanpo gerra jarraitu zuten gure herriko pertsona batzuei buruz idaztea da gure nahia. Gudari horiek asko zirenez ezingo ditugu denak aipatu artikulutxo honetan eta horregatik, agertzen ez direnei barkamena eskatzea da egin nahi dugun lehenengo gauza. Hemen, Bigarren Mundu-Gerran parte hartu zuten edota gauza bereziren bat egin zuten arituko gara.

Hasi aurretik hemengo herritarrek bi alderdietan borrokatu zutela adierazi behar dugu, bai "aliatu"ekin bai alemanekin. Hau oso normala da Espainiako gerra zibilaren alderdien zatiketa gogoratzen badugu. Gerra galdu zutenek, errepublikazaleak, oro har, orokorrean, "aliatu"en garaipena nahi zuten. Beraien ustez Alemaniak gerra galtzen bazuen Frankoren erregimena goitik behera etorriko zen eta Errepublika eta euskal autonomia berpiztuko ziren. Aldiz, frankistentzat ez zen dena hain xehea, gerran izan zuten garaipena neurri handi batean aleman eta italianoei esker izan baitzen. Falangistentzat ez zegoen dudarik, beraiek Hitlerren alde zeuden eta Espainia gerran sar zedin eskatzen zuten.



Militar askotarentzat, aldiz, betidanik anglofiloak izandakoentzat, naziak exotikoegiak ziren eta Espainiaren neutraltasuna nahi zuten. Bi bando hauen artean Franco zegoen, bai baitzekien Espainiak beste gerra bat ezin zuela egin eta,aldi berean, falangista eta militarren artean oreka mantendu nahi zuen gerraren panorama argitu bitartean.

Errepublikanoekin hasiz, frankistak gure herrian 1936ko irailaren 12an sartu zirela gogoraraziko dugu. Militarrak sartu aurretik, Madrilgo Gobernuia sustatzen zuten indarrak herritik atera ziren, eta beraiekin batera biztanlegoaren erdia, gutxi gorabehera. Hauek errepublikanoak jasan zituzten gorabehera beretsuak pasa zituzten, gehienak Bilbora joan ziren, Frantziara besteak. Bilbo erori ondoren, 1937an, herrira itzuli ziren asko, baina beste batzuk, berriz, 1939an, gerra galdu ondoren, herbestera joan ziren: Frantziara, Mexikora, Erresuma Batura, Sobietar Batasunera... hauek izan ziren beraien norabideak. Leku hauetan sufrimendu eta tristeziak jarraitu zuten eta urte bereko irailean Mundu-Gerra hasi zenean, batzuk berriro borrokarako bidea aukeratu zuten. Ezkertiarrek –sozialistek, komunistek– aliatu lagundu nahi zieten fazismoren kontra, 1936an hasitako guda jarraitzeko. Abertzaleek, aliatuen onarpena lortzeko eta, posible zitekeenaren neurrian, berjabetasuna berreskuratzeko.

Nola edo hala, erbestean zeuden gure bizilagun batzuk, leku eta era desberdinetan, aliadoekin borrokatu edo parte hartu zuten. Beraien artean kasu batzuk aipatuko ditugu:

– Félix Iglesias Mina: Lehenbiziko hau, ezagunenetakoa bat dugu, bitzita galdu zuelako batipat. Bere familia, ezkertiar amorratua zen. Atarrabian jaioa, langilea, Kapitanenea kalean bizi zen. Gerra hasi zenean 23 urte zituen eta UGT eta PCEko kidea zen. Bera eta beste bi anai, Pablo eta Manuel. Donostia eta Irungo iskanbiletan parte hartu zuten eta Gipuzkoa galdu eta gero Euzko Gudarostera pasa ziren. Félix, Larrañaga Batailoiko ofiziala izan zen eta gerra bukatu zenean Frantziara pasatzea lortu zuen. Bere anaiak, ordea, frankistek preso hartu zituzten.

Frantzian, 1945eko udaberrian, Atlantiar Ozeanoko kostaldeetan lurralde batzuk alemaniarren menpe jarraitzen zuten. "Aliado"ak iadanik Berlingo ateetan zeuden bitartean, "poltsa" hauek arazo larri bat ziren De Gaulleren soldaduentzat. "Poltsa" hauetako batean Médoc eskualdean, 5.000 soldadu alemaniarrek borrokan jarraitzen zuten isolaturik egon arren. Beraien aurka, 1944an sortutako Euskal Brigada ari zen borrokan, frantziar Carnot Brigadaren barruan, hain zuzen ere. Euskal Batailoi honek 200 gizon zituen, Félix Iglesias beraien artean, eta Kepa Ordoki zuen komandante. Apirilean erasoan hasi zitzaizkien eta handik 20 egunera bukatu zuten, Carnot Brigadako 400 soldadu hil edo desagertuak ziren, 400 hauen artean bost euskaldun zeuden eta beraien artean Félix Iglesias, Frantziaren askapena aldarrikatzeagatik hila. Hilabete bat falta zen soilik gerra bukatzeko¹.

1.- II Mundu-Gerraren azken gatazka hauei buruz gehiago jakiteko Juan Carlos Jiménez de Aberasturik El Mundo egunkarian idatzitako artikulua ikus daiteke. Erreferentzia hau da: *Abril 1945, el Batallón Gernika*. El Mundo, 1995, apirilak 12.

2.- Víctor Porresek, 1992an argitaratutako Oarsoko zenbakian artikulua eder bat idatzi zuen, istorio eta pasadizo guzti hauek kontatuz.

– Agustín Gómez de Segura Pagola: Kasu hau guztiz desberdina zen. Agustínek ez zuen borrokatu baina gerra osoa Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean pasa zuen "niños de la guerra" deitutako horietako bat baitzen. Agustín eta bere anaia Juan, 1937an, hamalau eta zazpi urte zituztela, SESBera bidaliak izan ziren. Félix Gómez de Segura Ochoa, beren aita, Gasteiztik etorrria, "Izquierda Republicanako" buruzagia zen eta Agustínen osaba batekin, José Gómez de Segura komunistarekin, "Junta de Defensa de la República" delakoan parte hartu zuten. Agustínen izeba-osaba gazteenek, María eta Bernardo Gómez de Segurak, Gerra Zibilean ere borrokatu zuten. PCEko kideak zirenez, María "miliciana" izan zen eta gerra bukatu ondoren urte askoz espetxean egon zen. Bernardok, berriz, 1938an bitzita galdu zuen "Frente del Ebro"-n.

Familia ezagutu eta gero, haurrak SESBera bidali izana erraz uler dezakegu. Errusian, Agustín komunistak eta futbolari ona egin zen, Moskuko Torpedo taldean jokatu eta fama handia lortuz, SESBeko selekzioan ere parte hartu zuelarik. 1956an Madrilerantz itzuli zen bere emazte eta seme-alabekin, baina, espainiar poliziak atxilotu egin zuen. Espetxean tratatu txarrak jaso zituen, jipoitu eta torturatu izanik. Espainiar futbol talde batean jokatu nahi bazuen ere Moskura itzultzea erabaki zuen. Handik aurrera ez zen inoiz SESBetik aterako eta han hil zen 1970eko azaroaren 16an, 48 urte zituela.

– Víctor Porres: CNTko kidea, gerra hasi zenean Irungo frontera borrokatzera abiatu zen. Zauritua, Bartzelonan egon zen eta Bilbora itzuli zenean Malatesta bataloi anarkistan enrrrolatu zen. Berritua zauriturik, Amorebietan, Asturiasera bidali zuten eta Iparraldeko frontea desagertu zenean Víctor, beste askok egin zuten moduan. Bartzelonara pasa zen Frantzia gurutzatuz. Aragoi larriki zauritu zuten eta, gerra bukatu zenerako Víctor ez zegoen oraindik erabat sendatuta. Muga pasa ondoren frantsesek Gursen entzerratu zuten 1939ko urria arte, data honetan lana aurkitu eta ateratzea lortu baitzuen. Alemaniarrek Frantzia okupatu zutenean, Víctorrek naziek Landetan jarri zuten Intendentzian lanari ekin zion eta laister frantziar erresistentziarekin harremanetan jarri zen. Espia lanak eginez, sabotaiak egiten laguntzen zuen eta behin, Hendaian, atxilotu zuten, baina ez zioten ezer egin. Gerra bukatu baina pixkat lehentxeago, erresistentziarekin lanean jarraitzen zuela, UNEan ("Unión Nacional Española") sartu zen, Espainia birkonkistatzeko asmoz, baina hori beste kontu bat da².

Hiru hauetaz gain, beste askok jasan zuten II. Mundu-Gerra. Gernika Batailoian, adibidez, bazeuden Félix Iglesiasez gain beste bi, bata Julian Zabalegi, eta bestea, nahiz eta Médocen borrokan, ibilia ez, Juan Arhancet. Juanen aita Iparraldekoa zenez, Espainiako gerra bukatu zenean Frantziara pasa zen. Han erresistentziarekin harremanetan jarri zen eta Bordele inguruan borrokatu zuen. Eta errepublikazaleekin bukatzeko, Antonio Ruiz Albisu aipatu behar dugu. Gure herrian gaur bizi den hauetako bakarra. Antonio gazte-gaztea zen Gerra Zibila hasi zenean, PNVko kidea, eta beste askok egin zuten moduan Frantzia aldera aldegin zuen gerra galdu ondoren. Han erresistentziari lotu zitzaion eta alemanen kontra ere borrokatu zuen. 1945ean itzuli zen baina soldaduska egin behar zuela konturatu zenean berriz ihes egin eta "Légion étrangère" delakoan apuntatu zen, Indotxina eta Algeriako gerretan borrokatuz.

Frankistei dagokienez, lehendabizi "División Azul" deituta-koari buruz hitzegin behar dugu. Gerran parte hartzeko Francok zituen dudak eta arazoak aipatu ditugu. Francok ez zuen gerran sartu nahi baina gerra hori bukatzerako alderdi irabazlean egon nahi zuen. Hitler eta Mussolinirekin ondo konpontzen zen baina, badaezpada, mendebaldeko "aliatu"ekiko erlazioa ez zuen erabat galdu nahi. Horregatik, Hitlerrek Sovietar Batasuna atakatu zuenean, 1941ean "División Azul" bidaltzea erabaki zuen, komunismoaren kontra borroka zezan. "División" honen bidez falangista nazizaleen nahia betetzen zuen eta, aldi berean, soilik Sovietar Batasunarekin zegoela gerran adierazten zuen, eta Erresuma Batua edo Estatu Batuekin. Bere borroka ez zen Hitlerren aldekoa, boltxebikeen kontrakoa baizik. Horrela ez zituen ate guztiak itxen eta nahi zuena lortuko zuen: itxaron, gerra nork irabaziko zuen jakiteko.

"División" hori ez zen Armada espainiarraren talde organiko bat, Falangeren boluntarioengandik sortutako erakunde militar bat baizik. "División azul" osatu zuten soldadu guztiak boluntarioak ziren baina agintariak Armadako ofizialak ziren eta Agustín Muñoz Grandes jenerala zen agindua zuena. Falange, espainiar alderdi bakarra, boluntarioen alistapenez arduratu zen eta 1941eko uztailaren 13an Madrildik 17.000 gizon atera ziren Errusiarantz. Bere helmuga Leningrado-Novgorod frontea zen eta urrirako hasiera eman zioten espainiarrek borrokari. Errusiako frontea oso gogorra izan zen eta 1943ko urrirako, Francok "División azul" erretiratzea erabaki zuenean, izugarritzko hondamenak jasan zituen. Bi urte horietan gizon asko galdu zituzten. Gaur egun datu zehatzak ematea oraindik ezinezkoa da, baina gutxi gorabehera hau izan zen balantzea:

- 3.934 hilik.
- 8.466 zauriturik.
- 326 desagertu eta sobietarren gabitu. (Hauetatik 219 itzuli ziren 1954ean, Stalinen espetxeetan hamar urte pasa ondoren).

17.000tik, ia 4.000 hiltzea ikaragarritzko galera da. Horrela bukatu zen Francoren europar mentura.

Guzti hauen artean zenbat euskaldun joan ziren ez dakigu zehazki eta, askoz gutxiago zenbat ziren gure herrikoak. Udal Artxibategian dauden informeak aztertuz hamahiru pertsonaren datuak aurkitu ditugu baina ziur aski gehiago joango ziren, hogei edo hogeita hamar bat gure ustez. Errusiarra abiatu zirenak ez ziren denak falangistak, tartean karlistak, Gerra Zibilean borrokatu zuen boluntarioak, menturazaleak eta herritik ihes egin nahi zuten aintzinako abertzale eta ezkertiar batzuk ere "División Azul"en apuntatu baitziren. Denetik pixka bat, ikus dezakegunez.

Izan ere, dakiguna zera da hauetatik zenbat ez ziren inoiz itzuli. Lau ziren Errusian bizitza galdu zuten gure bizilagunak:

- José Manuel Iraola Garin: 1942ko apirilaren bostean hila 30 urte zituela. Ekialdeko frontera joan baino lehen mikelete lanak egiten zituen eta Udaletxeak Francoren erregimenaren "adicto"tzat hartzen zuen.
- Ramón Clavé Gual: Soilik 1943an hil zela dakigu.
- Francisco Manterola Martiarena: Honek ere 1943an galdu zuen bizitza.
- Juan María Barandiaran Dorronsoro: Ez dakigu noiz hil zen baina ziur aski 1943an izango zen. 1936 aurretik STVko



(Solidaridad de Trabajadores Vascos) kide zen, PNVren aldekoa eta Gerra Zibila hasi zenean "Frente Popular"en alde parte hartu zuen. Zergatik apuntatu zen, orduan, "División Azul"en? Zaila da hori jakitea baina, aipatu dugunez, gerra galdu zuten askorentzat ez zen batere erraza gerraosteko bizitza eta batzuentzat Errusiako frontera aldegitza zen irtenbide bakarra.

Bestalde, Errusian betirako geratu zirenez gain, handik zauritu edo mutilaturik etorri zirenak daude. Guk dakigunez, bi ziren lehendabizikoak eta beste bi bigarrenak baina baliteke gehiago izatea:

- Enrique Illarramendi Galardi: Mutilatua, 21 urterekin Errusiarra joan zen. Karlista amorratua, Gerra zibilean "Requeté" boluntario gisara borrokatu zuen eta hori nahikoa izango ez bailitzan "División Azul"en apuntatu zen.
- José María Martínez Poza: Falangista, 20 urterekin apuntatu zen. Gerra zibilean parte hartu zuen eta SEUren (Falangista Ikasleen elkarte) herriko buruzagia zen. Mutilatua itzuli zen gerratik.
- Juan Imaz Bengoechea: Zauriturik etorria.
- Agustín Aramburu Perurena: 31 urterekin joan zen eta zaurituta etorri zen.

Hauek dira II. Mundu-Gerran jarrera aipagarrietako batzuk izan zituzten hemengo herritarrak. Ez daude denak, noski, baina ziur gaude daudenak jarrera aktiboa erakutsi zutela. Horregatik, ezbairik gabe aitortu behar dugu II. Mundu-Gerrak uste dugun baina eragin handiago izan zuela gure herriarengan, bai "memoria kolektibo"ari dagokionez bai eta gure herriaren etorkizunaren garapenari dagokionez ere.